

6. FITXA GIPIZKOA - 2030erako Garapen Jasangarriko Helburuak lortzen lagunduko duten jarduerak gauzatzeko dirulaguntzak

Nori zuzendua: Gipuzkoako Lurralde Historikoko udalak.

Sarbide-esteka: [Egoitza Elektronikoa - Gipuzkoako Foru Aldundia.](#)

Erreferentziazko araudia: [Dirulagutza hauen oinarri arautzaileak eta 2023ko deialdia: udalei zuzendutakoak, 2030erako garapen jasangarriko helburuak lortzen lagunduko duten jarduerak gauzatzeko.](#)

Eremuak: Jasangarritasuna.

Zenbatekoa: 230.000 €.

Eskabidea aurkezteko epea: 2024/04/22.

Laburpena

Deialdi honen xedea elkarrekiko norgehiagoka bidez Gipuzkoako Lurralde Historikoko udalei dirulaguntzak ematea da, haien bidez ingurumen izaerako Garapen Jasangarriko Helburuak (GJH) lortzen lagunduko duten azterketak, planak eta proiektuak gauzatzeko.

Diruz lagundu daitezkeen jarduketak

- a) **Garapen jasangarriko estrategia eta planak egitea.** Tokiko 2030 Agendaren planak eta estrategiak egitea. Hiri Agendak edo zeharkako izaera duten bestelako planak eta estrategiak, ingurumen politika udal kudeaketan eta plangintzan integratzen lagunduko dutenak.
- b) **GJH hauen ingurumen-helburuak betetzeko aurrerapenak sustatzen dituzten azterlanak, planak eta proiektuak:**
 - **GJH 3. Osasuna eta ongizatea:** osasunaren eta ingurumenaren arteko harremana; airearen kalitatea eta kalitate akustikoa hobetzea, biztanleria kaltebera duten espazioak lehenetsiz, hala nol, eskola-inguruneak.
Ez dira diruz lagunduko mugikortasun jasangarriko diagnostikoak eta planak.
 - **GJH 4. Kalitatezko hezkuntza:** garapen jasangarriaren arloko hezkuntza-jarduerak, bereziki herritarrak naturarekin lotzea sustatzen dutenak.
 - **GJH 5. Genero berdintasuna:** generoaren eta ingurumenaren arteko harremana (edo generoa

eta klima-aldaketa).

- **GJH 6. Ur garbia eta saneamendua:** ibaiak leheneratzea, ertzak eta ibai-konektibitatea hobetzea; hezeguneen ingurumen-babesa, leheneratzea eta hobekuntza; ur-masen eta hezeguneen egoerak hobetzeko xedea duten beste azterketa eta plan batzuk.

Ez dira diruz lagunduko saneamendu-proiektuetarako inbertsiorik, ez eta zaborra sakabanatuta biltzeko edo/eta ibaiak garbitzeko ekintzarik ere.

- **GJH 8. Lan duina eta hazkunde ekonomikoa:** jasangarritasuna bultzatzea turismoan, merkataritzan eta, oro har, tokiko enpresa-sarean.
- **GJH 11. Hiri eta komunitate jasangarriak:** hiri-jarduera gogaikarri edo kutsatzaileen kontrola eta jarraipena; paisaiaren kalitatea hobetzea; hiri-azpiegitura berdearen funtzionaltasuna diseinatzea, planifikatzea eta hobetzea; plazak, kaleak, erabiltzen ez diren orubeak eta espazio publikoko beste elementu batzuk berdatzea, baita udal-eraikinak ere (fatxadak eta estalki berdeak); ingurumenaren arloan boluntarioritza eta elkarte-jarduera sustatzea.

Herritarren parte-hartze prozesuak ez dira diruz lagunduko.

- **GJH 12. Ekoizpen eta kontsumo arduratsuak:** udal-erosketa berdea (ingurumen-irizpideak, irizpide sozialak eta ekonomikoak pleguetan txertatzea, udal-langileentzako prestakuntza, etab.); toki-administrazioan ingurumen-irizpideak txertatzea (bulegoak, ekitaldiak, etab.).

Ez da diruz lagunduko hondakinen prebentzioan, berrerabilpenaren eta birziklapenaren arloko jarduerarik, ez eta gaiari buruzko sentsibilizazio-kanpainarik ere.

- **GJH 13. Klimaren aldeko ekintzak:** klima-aldaketa arintzeko eta horretara egokitzeko plangintza (klima- eta energia-planak, klima-aldaketara egokitzeko planak, etab.); udal-kalteberatasunaren eta -arriskuaren azterketa eta horri lotutako azterlan espezifikoak (udal-mapa termikoa, azpiegiturak klima-aldaketako agertokiaren arqabera dimentsionatzea, etab.); naturan oinarritutako soluzioak txertatzea (SBN), bai hiri-ingurunean, bai landa-ingurunean; klima-ibilbideak eta -babeslekuak diseinatzea; klima-aldaketaren aldagaia sartzeko HAPOn berrikuspenean (aurretiazko azterlanak); herritarrak klima-aldaketaren inguruan sentsibilizatzeko ekintzak.
- **GJH 14. Itsaspeko bizitza:** isurketen eta jarduera kutsatzaileen kontrola; kostaldeko eremuak babestea eta kontserbatzea; kostaldeak leheneratzea eta naturalizatzea; herritarrak itsas-ingurunea babesaren inguruan sentsibilizatzeko ekintzak.
- **GJH 15. Lehorreko ekosistemetako bizitza:** biodibertsitateari eta natura-ondareari buruzko ezagutza hobetzea; azpiegitura berdearen plangintza, diseinua eta kudeaketa, bai eta hiri-inguruneetako funtzionaltasuna eta iragazkortasuna hobetzeko jarduketak ere; lur-mugimenduengatik, baliabideak gehiegi ustiatzeagatik, hondakinak isurtzeagatik eta abarregatik degradatutako eremuak lehengoratzea; biodibertsitatea kontserbatzeko lursailak erostea eta udal-ondarean sartzeko.
- **GJH 16. Bakea, justizia eta erakunde sendoak:** garapen jasangarriko gobernantza-ereduak definitzea; ingurumenaren egoerari edo GJHei egindako ekarpenari buruzko kontuak ematea.

Erakunde bakoitzak bi eskabide egin ahal izango ditu, gehienez ere.

Gastuetarako aldi hautagarria

Diruz lagunduko den jarduera ezingo da **2024ko urtarrilaren 1a** baino lehenago hasia egon, eta **2024ko urriaren 31rako** gauzatu eta zuritu beharko da.

Laguntzen zenbatekoa

Proiektu bakoitzeko emandako dirulaguntzaren zenbatekoa diruz lagundu daitezkeen gastuen zenbatekoaren ehuneko jakin bat izango da, BEZik gabe, balioespen-irizpideak aplikatuz lortutako puntu-kopuruarekiko proportzionala, eta ezingo da % 75 baino handiagoa izan; hori guztia, lortutako ehunekoa edozein dela ere, **35.000 € gehienez ere**.

Diruz lagundu daitezkeen gutxienerako kostua **3.000 €** (BEZik gabe), dirulaguntzaren eskatzailea 2.000 biztanle baino gutxiagoko udalerria denean izan ezik.